



BOOKTEGI

Zilarrezko distira

ARTHUR CONAN DOYLE

itzulpena:

Mirari Peso Gabiña

Hodei de Abajo Petralanda

Nahaia Kalparsoro Urrutikoetxea



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Zilarrezko distira

Itzulpena:

Mirari Peso Gabiña

Zuzenketa:

Hodei de Abajo Petralanda

Maketazioa:

Nahaia Kalparsoro Urrutikoetxea

—Uste dut alde egin beharko dudala, Watson. —esan zuen Holmesek, gosaltzera esertzen ginen bitartean.

—Alde egin! Nora?


—Dartmoor-era; King's Pyland-era.

Ez nintzen harritu. Benetan, nire ustekabe bakarra izan zen ezohiko kasu honetan jada nahasturik ez egotea, zeina hitz egiteko gai bakarra zen Ingalaterra osoan. Nire lagunak egun oso bat eman zuen gelan bueltaka, kokotsa bularrean sartuta eta kopeta zimurtuta. Pipa tabako beltz sendoenarekin behin eta berriro betetzen zuela, eta nire galdera edo iruzkin guztiak erantzun gabe uzten zituela. Kioskoko jabeak egunkari guztien edizio berriak bidali zizkigun, hark begiratu bakar bat egin eta gero bazter batera bota zituen. Baina, Holmes isil-isilik egon arren, nik banekien zerk kezkatzen zuen. Bere azterketa-gaitasunerako izan zitekeen arazo publiko bakarra zegoen, Wessex Koparako zaldi faboritoaren desagertzea, eta bere entrenatzailearen hilketak tragikoa. Beraz, krimenaren lekua bisitatuko zuela bat-batean esan zidanean, horixe zen, hain zuzen ere, aurreikusi eta espero nuen.

—Zurekin jaistea gustatuko litzaidake, oztopo bat ez banaiz. —esan nuen.

—Nire Watson maitea, mesede handia egingo zenidake etorriko bazina. Eta uste dut ez dela denbora galdua izango, puntu batzuek kasu paregabea dela iragartzen baitute. Paddington-en trena hartzeko denbora gutxi daukagu, eta bidaian zehar gaian sakonduko dut. Mesede bat egingo zenidake zure prismetiko bikainak ekarriko bazenitu.

Eta horrela, ordu bat inguru igaro ondoren, lehen mailako bagoi bateko bazterrean aurkitu nuen nire burua, Exeter-erantz abiada bizian nindoala, Sherlock Holmes bitartean, belarritako bidaia-kapelaz markaturiko aurpegi iharra eta pairugabearekin, Paddingtonen erositako egunkari-pilan murgiltzen zen. Jada utzita genuen irakurketa, azken egunkaria eserlekuaren azpian sartu zuenean, eta bere zigarro-kutxa eskaini zidanean.



—Ondo goaz. —esan zuen, leihotik begiratzuz eta erlojuari begirada bat emanez—. Gure abiadura orain berrogeita hiru milia eta erdikoa da orduko.

—Ez ditut ikusi milia laurdenak adierazten dituzten zutoinak. —esan nuen.

—Nik ere ez. Baina bide honetan telegrafo zutoinak hirurogei yarda aparte daude, eta kalkulua erraza da. John Straker-en hilketatuz eta Silver Blaze-n desagertzeaz zerbait irakurri duzula suposatzen dut.

—Telegraph eta Chronicle-k argitaratu dutena ikusi dut.

—Kasu honetan ikertzailearen artea xehetasunak hautatzean oinarritu behar da, proba berriak eskuratzean baino. Jende askorentzat hain da tragedia arraroa, konplexua eta garrantzi pertsonalekoa, non gehiegizko usteak, susmoak eta hipotesiak jasaten ditugun. Zailtasuna da gertakarien egitura - gertakari guztiz ukaezinak - teorizatzaileen eta kazetarien apaingarrietatik bereiztea. Gero, oinarri sendo honetatik abiatuta, hortik zein ondorio atera daitezkeen eta misterioaren funtsezko puntuak zeintzuk diren ikusi behar dugu. Astearte gauean, Koronel-Ross-en, zaldiaren jabearen, telegrama bat jaso nuen, eta Gregory ikuskatzailearen beste bat, kasuaren arduraduna, haietan nire lankidetzak eskatzen zuten.

— Astearte arratsaldea! — oihu egin nuen. —Eta ostegun goiza da. Zergatik ez zinen atzo joan?

— Huts bat egin dudalako, Watson maitea, niri buruz idatzi dituzun memorien bidez bakarrik ezagutzen nauenak pentsa lezakeena baino maizago gertatzen dena. Egia esan, ezinezkoa iruditzen zitzaidan Ingalaterrako zaldirik ospetsuena luzaroan ezkutaturik egotea, batez ere Dartmoor iparraldea bezain jende gutxi zegoen leku batean. Atzo, orduz ordu itxaron nuen aurkitu zutelaren berria eta bahitzailea John Straker-en hiltzailea zela. Baina, egun berri bat etortzean, eta ikusi nuenean Fitzroy Simpson gaztearen atxiloketaz gain ez zela ezer egin, sentitu nuen esku hartzeko unea iritsi zela. Hala ere, nolabait sentitzen dut atzokoa ez zela alferrikakoa izan.

—Baduzu, orduan, teoria bat?

—Gutxienez, kasuaren puntu nagusiak badakizkit. Zerrendatuko dizkizut, izan ere, ezerk ez du gai bat gehiago argitzen beste bati azaltzea baino, eta ezin dut espero zu nirekin lankidetzan aritzea gure abiapuntua azaldu barik.

Eserlekuan etzan nintzen, zigarroari zupadak emanez, eta Holmesek bitartean, gorputza aurrerantz botata eta bere hatz erakusle luze eta mehez, esku-ahurraren gainean zerrendatzen ari zen puntuak markatuz, gure bidaia eragin zuten gertaerak zirriborratzen zizkidan.

— Silver Blaze, — esan zuen — Somomy jatorrikoa da, eta bere ospe handiko aitaren antzera, marka distiratsua du. Orain bere bosgarren urtean dago, eta lortu ditu, bere jabearentzako, Koronel Ross-entzako, sari posible guztiak. Hondamendiaren unera arte, Wessex Kopako gustukoena zen, apustuak hiru-bat bere alde zituela. Hala ere, beti izan da lasterketetako publikoaren faborito nagusia, eta ez die inoiz huts egin; beraz, aukera horiekin ere, diru kopuru handiak jarri dituzte haren alde. Beraz, argi dago, jende askok eragotzi nahi zuela datorren asteartean irteera ematean Silver Blaze pistan egotea.



—Jakina, zaldi hori denek ezagutzen zuten King 's Pylanden, non Koronelaren entrenamendu ukuiluak kokatuta zeuden. Neurri guztiak hartu ziren faboritua babesteko. Entrenatzailea, John Straker, erretiratutako jockey bat zen, Ross Koronelarentzat korrika egin zuena baskulak gehiegizko pisua markatu zuen arte. Koronelarentzat bost urte egin zituen jockey gisa eta zazpi entrenatzaile gisa, eta beti izan zen langile leiala eta sutsua. Hiru mutiko zituen bere agindupean, ukuiluak txikiak zirelako eta lau zaldi besterik ez zituztelako. Mutikoetako bat ukuiluan geratzen zen gauero, besteek apartamentuan lo egiten zuten bitartean. Hirurek zuten izaera bikaina. John Straker, nor gizon ezkondua den, ukuiluetatik berrehun yarda ingurura bizi zen etxetxo batean. Ez du seme-alabarik, zerbitzari bat du eta ondo bizi da. Herrialde inguruko lurrak hutsik daude, baina milia erdi bat iparraldera basetxe-taldetxo bat dago, Tavistockeko kontratista batek eraikia, gaixoentzat eta Dartmoorreko aire garbiaz gozatu nahi duten pertsonentzat. Tavistock herria bera bi milia mendebaldera dago, eta parkearen beste aldean, bi milia ingurura, Mapleton-en entrenamenduzentroa, Lord Backwater-en jabetzakoa eta Silas Brown-ek zuzendua. Gainerakoan, basoa guztiz malkartsua da eta ijito transhumante gutxi batzuk bakarrik bizi dira. Horixe zen egoera orokorra joan den astelehen gauean, tragedia gertatu zenean.

Arratsalde hartan zaldiak ohi bezala trebatuak eta edanaraziak izan ziren, eta ukuilua gaueko bederatzieta itxi zen. Zaldizainetako bi entrenatzailearen etxera joan ziren eta han afaldu zuten, sukaldean, eta hirugarrena, Ned Hunter, zaintza egiten zegoen. Bederatziak jo eta minutu gutxira, zerbitzariak, Edith Baxterrek, afaria eraman zion ukuiluetara, ardiki plater bat curry-ra. Ez zuen edaririk eraman, ur-txorrota bat baitzegoen ukuiluan, eta zaintza egiten dagoen gizonak ezin duela besterik edan dioen arauak agintzen du. Neskameak linterna bat zeraman, oso ilun baitzegoen, eta bideak eremu zabal bat zeharkatzen zuen.

Edith Baxter ukuiluetatik hogeita hamar yarda ingurura zegoela, gizon bat ilunpetatik atera eta gelditzeko eskatu zion. Linternak proiektaturiko argi horixkako zirkuluan sartzean, neskak itxura dotoreko gizon bat zela ikusi zuen, tweed-ezko traje gris bat eta oihalezko txapel bat zituena. Azpantar batzuk jantzi zituen, eta heldulekua zuen makila astun bat zeraman. Hala ere, bere aurpegiaren zurbiltasuna eta bere keinuen urduritasuna Edith Baxter hunkitu zuen. Bere adina hogeita hamar urtetik gorakoa izango zela pentsatu zuen.



«—Esango didazu non nagoen? —galdetu zuen berak. —Ia etsi nuen egurats zabalean lo egiten, bere linternaren argia ikusi dudanean.

«—King 's Pylandeko entrenamendu-ukuiluetatik gertu zaude. — esan zion emakumeak.

«—Hara, noski! Hau zortea! - oihukatu zuen gizonak. — Mutil batek gauero bakarrik lo egiten duela esan didate. Agian zuk daramazun hori bere afaria da. Suposatzen dut zu ez zarela nahiko harro izango soineko berria erosteko dirua ukatzeko, ezta? —Txalekoko poltsikotik papertxo tolestu bat atera zuen. — Har dezala mutilak nire oharra gaur gauean, eta aurki daitekeen soineko politena oparituko dizut.

—Gizon haren jokabideek adierazitako seriotasunak emakumea izutu zuen, haren ondotik korrika igaro eta janaria eman ohi zion leihorantz joan zen. Leihoa zabalik zegoen jada eta Hunter barruko mahaian eserita zegoen. Hark gertatutakoa kontatzen hasia zen, ezezaguna berriro agertu zenean.

«—Gabon —esan zuen, leihotik begira. — Zurekin hitz egin nahiko nuke. Neskak, gizona hizketan ari zen bitartean, honen esku itxitik paper tolestu baten muturra ikusi zuela zin egiten du.

«—Zerk ekarri zaitu hona? — galdetu zion mutikoak.

«—Zure poltsikoan zerbait jarri ahal duen negozio bat da - esan zuen bestea. -Barruan Wessex Kopan parte hartzen duten bi zaldi dauzkazu: Silver Blaze eta Bayard. Eman ieazkidazu haiei buruzko datu batzuk eta ez duzu ezer galduko. Egia da Bayardek ehun yardako aldea eman ziezaiokeela besteari bost estadiotan, eta hemengo jendeak bere alde egin duela?

«—Beraz, datu-saltzaile madarikatu horietako bat zara! — oihukatu zuen mutikoak. — Erakutsiko dizut nola tratatzen ditugun King 's Pylanden! Jauzi batez altxatu eta, mahaia inguratuz, ukuilua korrika zeharkatu zuen txakurra askatzeko. Neskak etxe alderantz ihes egin zuen, baina korrika egiten zuen bitartean, atzera begiratu eta ezezagunak burua leihotik ateratzen zuela ikusi zuen. Hala ere, minutu bat geroago, Hunter txakurrarekin atera zenean, gizona desagertu egin zen, eta, nahiz eta eraikin guztietan zehar bere bila ibili, ez zuen haren arrastorik aurkitu.”

—Momentu bat. —esan nuen. —Ukuilu-mutikoa txakurrarekin korrika atera zenean, ez al zen atea zabalik utziko?

—Bikain, Watson, bikain! —xuxurlatu zuen nire kideak. Puntu hori hain garrantzitsua iruditzen zitzaidan, ezen atzo bertan telegrama bat bidali nion Dartmoorrera hori argitzeko. Mutikoak atea giltzapetu zuen joan baino lehen. Esan behar da leihoa ez dela gizon bat bertatik pasatzeko bezain zabala.


—Hunterrek bestea itzuli arte itxaron zuen, eta, orduan, mezu bat bidali zion entrenatzaileari, gertatutakoa jakinarazteko. Straker ikaratu egin zen istorioa entzutean, baina ez zen ohartu benetan zenbaterainokoa zen. Hala ere, apur bat kezkatuta geratu zen, eta Straker andreak, goizeko ordu batean esnatu zenean, senarra janzten ari zela ikusi zuen. Bere galderei erantzunez, zaldiekiko kezkak ez ziola lo egiten uzten esan zion, eta ukuilura iritsi nahi zuela dena ondo zegoela egiaztatzeke. Emakumeak etxean geratzeko esan zion, euriak leihoaren kontra jotzen zuela entzuten baitzen, baina, behin eta berriz saiatu arren, gizonak bere zira handia jantzi eta etxetik irten zen.

Straker andrea zazpietan esnatu zen eta senarra oraindik ez zela bueltatu ikusi zuen. Presaka jantzi, neskameari deitu eta ukuilurantz abiatu zen. Atea zabalik zegoen; barruan, aulki baten gainean kuzkurtuta, Hunter zegoen, erabat zorabiatuta. Zaldi faboritoaren ukuilua hutsik zegoen eta ez zegoen entrenatzailearen arrastorik.

Uhal-gelaren gaineko gailurrean lo egiten zuten bi mutikoak, presaka altxatu ziren. Gauean ez zuten ezer entzun, biek lo sakona dutelako. Zalantzarik gabe Hunter droga gogor baten eraginpean

zegoen. Erreakzionatzea lortu ez zutenez, lo egiten utzi zuten, bi mutilak eta bi emakumeak entrenatzailearen eta zaldiaren bila irteten ziren bitartean. Hauek entrenatzaileak zaldia ohiko ordua baino lehen ateratzeko itxaropena zuten, baina inguruko lurralde guztiak hartzen zituen etxe ondoko muinora igotzean, desagertutako faboritoaren seinalerik ez ikusteaz gain, tragedia baten aurrean zeudela ohartarazi zien zerbait sumatu zuten.

Ukuiluetatik milia laurdenera, John Strakerren zira zuhaixka baten gainean azaltzen zen. Harantzago, eremuan, katilu formako sakonune bat zegoen, eta horren azpian entrenatzaile zoritxarreko gorpua aurkitu zuten. Honek objektu gogor baten kolpe bortitzez burua txikituta zeukan, eta gainera izterrean zauri bat zuen, dudarik gabe oso tresna zorrotzez egindako ebaki luze eta garbi bat. Hala ere, argi zegoen Strakerrek erasotzaileengandik gogor defendatu zuela bere burua; eskuineko eskuan eskutokiraino odolez estalitako labanatz bat baitzuen, eta ezkerrekoan, berriz, zetazko gorbata gorri eta beltz bat. Neskameak gorbata identifikatu zuen, aurreko gauean ukuiluak bisitatu zituen ezezagunarena bezalakoa zelako. Hunter ere, konortea berreskuratu zuenean, gorbataren jabetzari buruz nahiko seguru agertu zen. Era berean, ziur zegoen ezezagunak, leiho ondoan zutik zegoela, ardikian droga jarri zuela mutikoak ukuiluak zaindu ahal ez izateko. Desagertutako zaldiari zegokionez, zaldia borrokan egon zela adierazten zuten arrastro ugari zeuden sakonuneko lokatzen. Baina goiz hartatik ez da agertzen, eta, nahiz eta ordainsari handia eskaini den, eta Dartmoorreko ijito guztiak erne dauden, ez da haren berririk izan. Azkenik, mutikoaren afariaren hondarren analisiak erakutsi du opio-hauts asko zutela, eta etxeko gainerako pertsonak ere gauza bera jan arren, ezin hobeto zeudela.



Hauek dira kasuaren gertakari nagusiak, susmorik gabe eta ahalik eta argiren azalduta. Orain, poliziak gai honetan egin duena laburbilduko dizut.

Gregory inspektorea, kasua duena, oso funtzionario aditua da. Irudimena izango balu, bere lanbidean gora hel liteke. Iritsi zenean susmo guztiak sortzen zituen gizona aurkitu eta geldiarazi zuen. Hura aurkitzea ez zen oso zaila izan, lehen aipatu dudan hiribilduetako batean bizi zelako. Dirudienez, Fitzroy Simpson zuen izena. Sehaska oneko eta heziketa bikaineko gizona da, hipodromoetan bere dirutza xahutu duena, eta orain lasai eta dotore bizi zela Londreseko kirol-klubetan apustuak egiten. Bere apustu-liburuak erakusten du honek bost mila libra jokatu zituela faboritoaren aurka. Atxilotu zutenean, bere borondatez adierazi zuen Dartmoorrera joan zela King 's Pylandeko zaldiei buruzko informazioa lortzeko, eta baita Desborough bigarren faboritoari buruzkoa ere, zeina Silas Brownen ardurapean baitzegoen, Mapletongo ukuiluetan. Honek ez zuen ukatu aurreko gauean lekukoek zioten moduan jokatu zuela, baina asmo gaiztoak ez zituela adierazi zuen, baizik eta lehen eskuko informazioa lortu nahi zuela. Gorbata erakutsi ziotenean, zurbildu egin zen, eta ezin izan zuen azaldu nola iritsi zen eraildako gizonaren eskuetara. Bere arropa bustiak erakusten zuen kanpoan egon zela aurreko gaueko ekaitzetan, eta bere makilarekin, berunezko pisuko Penang-lawyer batekin, behin eta berriz kolpatuz, entrenatzailearen zauri izugarriak eragin zitzakeela. Bestalde, honek ez zeukan zauririk, eta Strakerren aitzoaren egoerak erakusten zuen erasotzaileetako batek gutxienez bere marka eraman behar zuela. Hemen dauzkazu datu guztiak laburbilduta Watson, eta ideiarene bat emango bazenit, biziki eskertuko nizuke. —

Interes handiz entzun nuen Holmesek, berezko argitasun horrekin, emandako azalpena. Gertaeren berri banuen ere, ez nuen haien garrantzia ezta haien arteko loturak ere neurtu.

—Ez al da posiblea Strakerren zauria bere aiztoak eragin izana edozein garun-lesioaren ondorengo konbultsioetan? —iradoki nuen.

—Posible baino gehiago da, litekeena da. —esan zuen Holmesek. —Kasu horretan, akusatuak bere alde izan dezakeen argudioetako bat desagertuko litzateke.

—Nolanahi ere, ez dakit zein izan daitekeen poliziaren teoria. —esan nuen nik.

—Uste dut azaltzen dugun edozein teoria, oso eragozpen larriak dituela. —erantzun zuen nire kideak. —Pentsatzen dut poliziak imajinatuko duela Fitzroy Simpsonen, mutikoa drogatu eta, auskalo nola, giltzaren kopia bat lortu ondoren, ukuiluko atea ireki eta zaldia atera zuela, bahitzeko asmoz. Bida desagertu da, beraz ziur aski zaldiari jarriko zion. Gero, atea zabalik utzita, zaldia eramaten zegoela, entrenatzailearekin topatu zen edo beharbada, honek bera harrapatu zuen. Borroka bat izango zen, noski. Simpsonen Strakerri burmuinak saltatuko zion bere makilarekin Strakerren labanatoaren zauririk jaso gabe, eta gero, edo lapurrak zaldia gordeleku sekretu batera eramane zuen, edo animaliak borrokan ihes egin zuen eta orain noraezean dabil. Horrela ikusten du poliziak, eta, bertsio hau gertagaitza badirudi ere, gainerako guztiak ere gertagaitzagoak dira. Datuak gertaeren lekura iritsi bezain laster egiaztatuko ditut, baina ordura arte ez dut uste gure ikerketan asko aurreratu dezakegunik.

Tavistockeko hiri txikira iritsi baino lehen gaua egin zen, Dartmoorreko zirkulu handiaren erdian ezkutu baten buru bezala dagoen hiritxora. Bi jauna genituen geltokian zain - gizon luze eta ilehori bat, ile eta bizar lehoidunak eta begi urdin sarkorrak zituen; bestea, gizon txiki bat, erne, oso txukun eta garbia, lebita eta polainekin, patilla zorrotzak eta monokuloa zituen. Azken hau Ross koronela zen, kirolari ezaguna; bestea Gregory inspektorea, detektibeen gorputz ingelesean ezaguna egiten ari zena.

—Pozik nago zure etorrerarekin, Holmes jauna. —esan zuen koronelak. Hemen dagoen inspektoreak imajina daitekeen guztia egin du, baina ez dut harririk utzi nahi mugitu gabe Straker gaixoa mendekatzeko eta nire zaldia berreskuratzen saiatzeko.



—Ba al dago berririk? —galdetu zuen Holmesek.

—Sentitzen dut gutxi aurreratu dugula esan beharra. —esan zuen inspektoreak. —Zalgurdi bat dugu atean zain, eta segur aski, lekua ilundu baino lehen ikusi nahiko duzunez, horretaz hitz egin dezakegu gidatzen dugun bitartean. —

Minutu bat geroago, zalgurdi eroso batean eserita geunden Devonshire hiri zahar eta pintoreskoa zeharkatzen. Gregory inspektoreak guztia zekien kasuari buruz, eta iruzkin uholde bat bota zigun Holmesek noizean behin galdera edo oihu batekin eteten zituen bitartean. Ross koronela eserlekuan etzaten zen besoak gurutzaturik eta kapela begien gainean makurturik, nik bi detektibeen arteko elkarrizketa arretaz entzuten nuen bitartean. Gregoryk bere teoria azaltzen zuen, eta Holmesek trenean aurreikusitako teoria ia bera zen.

—Fitzroy Simpsonen inguruan ixten ari da sarea —komentatu zuen hark —eta uste dut gure gizona dela. Aldi berean, onartu behar dut frogak zirkunstantzialak baino ez direla, eta gertaera berriren batek hori alda dezakeela.

—Zer diozu Strakerren labanaz?

—Erortzean bere burua zauritu zuela ondorioztatu dugu.

—Nire lagunak, Watson jaunak, iradokizun hori egin zidan jaisten geundela. Hala bada, hori gizon

honen aurka, Simpsonen aurka, joango litzateke.

—Dударик gabe. Ez diogu labanarik aurkitu, ezta zauririk ere. Baina bere aurkako argudioak oso sendoak dira. Faborittoa desagertzea nahi zuen. Ukuilu-mutikoa drogatu izanaren susmopean dago, ekaitzaren erdian zegoen, makila astun batez armaturik zegoen eta bere gorbata hildakoaren eskuan aurkitu zen. Epaimahaiaren aurrean agertzeko material nahikoa daukagula uste dut.

Holmesek burua astindu zuen. —Abokatu trebe batek bertan behera utziko lituzke froga horiek. —esan zuen. —Zergatik atera behar izango luke zaldia ukuilutik? Min eman nahi bazion, zergatik ezin zuen han bertan egin? Aurkitu al da hark giltzaren kopiarik ote zuen? Zein botikarik saldu zion opio-hautsa? Eta batez ere, non gorde zezakeen berak, kanpotar batek, zaldi bat, eta honelako zaldi bat? Zer esan du neskameak mutikoari ematea nahi zuen paperaz?

—Hamar liberako billete bat zela dio. Billete bat aurkitu dugu bere diru-zorroan. Baina zuk planteatzen dituzun gainerako objektzioak ez dira diruditen bezain ikaragarriak. Gizon hau ez da kanpotarra. Bitan bizi izan da Tavistocken udan. Seguruenik opioa Londresetik ekarriko zuela. Giltza, bere eginkizuna bete ondoren, urrutira botako zuen. Zaldia putzu baten hondotan egon daiteke, edo meatze eremu zaharren hondotan.

—Zer dio berak bere gorbata buruz?

—Berea dela onartzen du eta galdu zuela deklaritzen du. Baina kasu honetan elementu berri bat sortu da, eta horrek zaldia ukuilutik zergatik atera zuen azaldu ahalko luke.

Holmesek belarriak zabaldu zituen.

—Aztarna batzuek erakusten dute ijito talde batek hilketa gertatu zen lekutik milia batera kanpatu zuela astelehen gauean. Asteartean jada ez zeuden. Uste badugu Simpson eta ijitoen artean akordio bat zegoela, ez ote zien zaldia eman Strakerrek harrapatu zuenean, eta ezin ote da animalia orain ijitoen esku egon?

—Litekeena da, zalantzarik gabe.

—Paramoa arakatzen ari dira ijito horien bila. Tavistockeko ukuilu eta eraikin guztiak ere aztertu ditut hamar miliako erradioan.

—Beste entrenamendu-ukuilu bat gertu dagoela esan didate.

—Bai, bere zaldia, Desborough, bigarrena zegoenez apustuetan, interesa zuten faboritooaren desagertenean. Jakina da Silas Brownek, entrenatzaileak, apustu handiak egin zituela lasterketan, eta gainera ez zen Straker gizajoaren lagun mina. Hala ere, ukuiluak aztertu ditugu eta ez dugu ezer aurkitu hura erruztatzeko.

—Simpson hori Mapletongo ukuiluen interesekin lotzen duen ezer ez da aurkitu?

—Ezer ere ez.

Holmes eserlekuan etzan zen eta elkarriketa amaitu zen. Minutu batzuk geroago, gure gidaria

adreilu gorrizko etxe txiki baten aurrean gelditu zen, honek bidetik irteten ziren teilatu-hegalak zituen. Handik pixka batera, zelai baten beste aldean, teila grisezko eraikin luze bat zegoen. Gainerako norabideetan, zelaiko bihurgune guztiak, garo zimelduek brontzez koloreztatutako bihurguneak, zeruaren lerroraino hedatzen ziren. Tavistockeko kanpandorreek eta Mapletongo ukuiluak markatzen zituzten etxe multzo batek bakarrik eteten zituztela. Denok jaitsi ginen zalgurditik, Holmesek izan ezik, honek barruan etzanda jarraitzen zuen erabat murgilduta eta begiak aurrean zeukan zeruan finkaturik. Nik beso bat ukitu nionean bakarrik, ikaratu eta autotik atera zen.

—Barkatu. —esan zion, Ross koronelari, zeinak harriuraz begiratu zuen. —Ametsetan ari nintzen.

Haren begiek halako distira egiten zuten, eta haren keinuek halako asaldura islatzen zuten, ezen, ondo ezagutzen nuenez, banekien arrasto bat aurkitu zuela, baina ez nekien non.

—Nahiago al duzu, Holmes jauna, oraintxe bertan krimenaren gertalekuraino jarraitzea? —proposatu zuen Gregoryk.

—Uste dut nahiago nukeela hemen pixka bat geratzea eta xehetasun batzuk aztertzea. Straker hona ekarri duzuela suposatu dezaket, ezta?

—Bai; goiko pisuan etzanda dago. Ikerketa judiziala bihar hasiko da. Urteak zeramatzan zure zerbitzura ezta, Ross koronela?

—Betidanik hartu dut langile eredugarritzat. Suposatzen dut hil zenean poltsikoetan zeramanaren inbentarioa egin zenutela, inspektore.

—Egongelan daukat guztia, ikusi nahi baduzu.

—Asko gustatuko litzaidake. Egongelan sartu eta mahai nagusiaren inguruan eseri ginen denok, inspektoreak latorrizko kaxa karratu bat ireki eta gauza pilo bat aurkezten zizkigun bitartean. Horretan honako hau zegoen: pospolo kutxa bat, bi hazbeteko seboko kandela, A D P-ko txilar sustraiko pipa bat, foka larruzko poltsa bat ontza erdiko Cavendish tabako tiratan moztuta, zilarrezko erloju bat urrezko kate batekin, urrezko bost txanpon, aluminiozko arkatx kutxa bat, paper batzuk eta marfilezko kirtendun labana bat Weiss & Co. enpresako orri delikatuarekin.

—Oso labana bitxia da. —esan zuen Holmesek, hau altxatuz eta arretaz aztertuz. —Odol orbanen arabera, suposatzen dut hildakoaren eskuetan aurkitu zutena dela. Watson, seguraski aizto hau zure lanbideari dagokiola.

—Horri kataratentzako labana deitzen diogu. —esan nuen.

—Hori uste nuen nik. Oso aho delikatuak, oso lan delikatuak eskainia. Espedizio gogor batera eramateko gauza arraro bat, batez ere poltsikoan ez zaiolako sartzen.

—Aiztoaren punta gorpuaren ondoan aurkitu dugun kortxozko disko batek babesten du. —esan zuen inspektoreak. —Emazteak esan digu aiztoa apain-mahaiaren gainean zegoela eta Skraterek

logelatik irtetean hartu zuela. Ez zen oso arma eraginkorra, baina beharbada ez zuen hoberik aurkitu une hartan.

—Litekeena da. Zer paper dira hauek?

—Haietako hiru belar-banatzailen ordainagiriak dira. Beste bat Ross koronelaren argibide-gutun bat da. Eta azken hau jostun baten ordainagiria da, hogeita hamazazpi libra hamabost txelinekin, Madame Lesurier, Bond Streetekoak, William Derbyshireren izenean emana. Straker andreak esan digu Derbyshire bere senarraren laguna zela, eta batzuetan gutunak hona bidaltzen zizkiola.

—Derbyshire andreak nahiko gustu garestiak ditu - azpimarratu zuen Holmesek, faktura aztertzen ari zela. Hogeita bi ginea diru asko da jantzi bakar batengatik. Hala ere, badirudi jakin besterik ez dagoela, eta krimenaren eszenara joan gaitezke.

Egongelatik irtetean, korridorean zain zegoen emakume batek pauso bat eman zuen guregana, eta esku bat jarri zuen inspektorearen besoan. Aurpegia argaldua, mehea eta grinatsua zuen, azken gertakarien ikarak markatua.

—Ba al dituzu? Aurkitu al dituzu? —esan zuen arnasestuka.



—Ez, Straker andrea. Baina Holmes jauna Londresetik etorri zaigu laguntzera, eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu.

—Ez al genuen duela gutxi Plymoutheke landa-festa batean elkar ezagutu, Straker andrea? — galdetu zuen Holmesek.

—Ez, jauna; oker zaude.

—Hara! Zin egingo nuke. Uso koloreko zetazko traje bat zeneraman jantzita, ostruka-lumazko apaingarriekin.

—Ez dut inoiz horrelako soinekorik izan, jauna. —erantzun zuen damak. —Horrek argi uzten du. — esan zuen Holmesek. Barkamena eskatu eta inspektorearen atzetik irten zen. Paseotxo batek gorpua aurkitu zuten sakonunera eramane gintuen. Haren ertzean zuhaixka bat zegoen, zira eskegita.

—Esan didatenez, gau hartan ez zuen haizerik jotzen. —esan zuen Holmesek. — Ez zegoen haizerik; baina euri asko bai.

—Kasu horretan, haizeak ezin izan zuen zira zuhaixkaraino eramane, eta norbaitek han jarri behar izan zuen.

—Bai, zuhaixkan jarrita zegoen.

—Honek interesgarria dirudi, lurra oso zapalduta dagoela ikusten dut. Zalantzarik gabe, oin asko egon dira hemen astelehen gauetik.

—Estera zati bat jarri da hemen ondoan, eta denok jarri gara haren gainean.

—Bikain.

—Poltsa honetan Strakerrek jantzitako botetako bat, Fitzroy Simpsonen zapata bat eta Silver Blazeren ferra zahar bat ekarri dut.

—Inspektore maitea, zoragarria zara! —Holmesek poltsa hartu, sakongunera jaitsi eta estera erdialdera bultzatu zuen pixka bat. Gero, ahoz behera etzanda eta kokotsa eskuetan zuela, arretaz aztertu zuen aurrean zeukan lokatz zapaldua. —Aha! —esan zuen bat-batean. —Zer da hau? —. Erdi erretako argizarizko pospolo bat zen, eta hain lokatz asko zeukan ezen egurrezko ezpal soil bat zirudien.

—Ez dakit nola ez nuen aintzakotzat hartu. —esan zuen inspektoreak, gogaituta.

—Ikustezina zen lokatzaren barruan. Bakarrik ikusi dut haren bila nenbilerako. — Nola! Aurkitzea espero zenuen? Ez zitzaidan ezinezkoa iruditu.

—Holmesek poltsatik botak atera eta lurreko arrasto guztiekin alderatu zituen. Jarraian sakonunearen ertzeira igo zuen eta iratze eta sastraken artean ibili zen.

—Uste dut ez dagoela aztarna gehiagorik —esan zuen inspektoreak. —Inguru osoa ehun yardara begiratu dut arretaz.

—Bai! —esan zuen Holmesek, altxatuz. —Lotsagabekeria izango litzateke nik berriro ikuskatzea zuk egin ondoren. Baina paseoa ilundu baino lehen ematea gustatuko litzaidake, biharko lurra ezagutzeko, eta uste dut ferra hau poltsikoan gordeko dudala zorte ona ekar diezadan.

Ross koronelak, nire adiskidearen metodo lasai eta sistematikoaren aurrean egonezina erakutsia zuenak, erlojuari begiratu zion. —Zu nirekin bueltatzea nahiko nuke, inspektore —esan zuen hark. —Zure aholkua nahiko nuke puntu batzuei buruz, eta bereziki jendeari ez ote diogun zor gure zaldiaren izena Koparako inskripzioetatik kentzea.

—Inondik inora ere ez. —oihukatu zuen Holmesek zirt-zart. —Nik izena dagoen bezala utziko nuke.

Koronelak burua makurtu zuen. —Zure iritzia izateak pozten nau, jauna —esan zuen hark. Paseoa amaitzean, Straker gizajoaren etxean aurkituko gaituzu eta elkarrekin joan gaitzke autoan Tavistockera.

Inspektorearekin itzuli zen, eta Holmes eta biok astiro sartu ginen paramoan. Eguzkia Mapletongo ukuiluen atzean ezkututzen hasten zen, eta aurrean genuen lautada luze eta uhintsua urre gorrixka batez tindatu zen, iratze zimelduek eta zaramorrek ilunabarreko argia harrapatzen zuten leku haietan gaztaina-koloreko gorrixka bihurtzen zena. Baina nire lagunak ez zuen arreta jartzen paisaiaren edertasunean, bere pentsamenduan murgilduta zegoen.

—Hemendik da, Watson —esan zuen azkenean. Ahaztu dezagun oraingoz John Straker nork hil zuen, eta azter dezagun zaldiarekin zer gertatu den. Tragedian zehar edo ondoren ihes egin zuela suposatuz, norantz jo zezakeen? Zaldiak oso izaki taldekoiak dira. King's Pylandera itzuli edo Mapletonera joango zen. Zergatik aterako litzateke korrika basatiki paramotik? Honezkero norbaitek ikusiko zuen. Eta zergatik bahituko lukete ijitoek? Jende horrek beti saihesten ditu arazoak eta ez du nahi gatazkarik poliziarekin. Horrelako zaldi bat saltzea ere ezin zuten pentsatu. Hura eramateak oso arriskutsua zen, eta ez zuten inolako etekinik ateratzen. Hori argi dago.

—Beraz, non dago?

—Esan dizut King 's Pylandera edo Mapletonera joan behar zela. Ez dago King' s Pylanden. Orduan, Mapletonen egon behar da. Har dezagun hori lan-hipotesizat, eta ikus dezagun noraino eramaten gaituen. Inspektoreak adierazi zuen bezala, eremu hori oso gogorra eta lehorra da. Baina malda bat eratzen du Mapleton aldera, eta hemendik ikus dezakezu sakonune luze bat dagoela han, astelehen gauean oso heze egongo zen sakonune handia. Gure ustea zuzena balitz, zaldiak eremua zeharkatuko zukeen, eta han bilatu beharko ditugu haren aztarnak.

Elkarriketan zehar, pauso arinean ibiltzen jarraitu genuen, eta minutu gutxiren buruan sakonunera iritsi ginen. Holmesek esan bezala, eskuineko ertzetik jaitsi nuen, eta berak ezkerretik, baina berrogeita hamar pauso baino gutxiago eman nituenean, oihu egiten entzun nuen eta eskua astintzen ikusi nuen. Zaldi baten oinatzak argi eta garbi marrazten ziren lur bigunean, eta poltsikotik ateratako ferra ezin hobeto ahokatzen zen haietan.

—Ikusten duzu nolako garrantzia duen irudimenak? —esan zuen Holmesek. —Gregoryri falta zitzaion ezaugarri bakarra da. Guk gerta zitekeena imajinatu dugu, suposizio horri jarraitu diogu eta egokia izan da. Jarrai dezagun aurrera.

Hondo zingiratsua zeharkatu eta milia laurden bat belar lehor eta gogorraren gainetik igaro ginen. Berriro jaitsi zen, eta berriro aurkitu genituen aztarnak. Gero milia erdiz galdu genituen, baina bakarrik Mapletonera hurbiltzean berreskuratzeke. Holmesek ikusi zituen lehenik, eta garaipen keinu batez erakusteko gelditu zen. Gizon baten arrastoa ikusten zen zaldiaren ondoan.

—Zaldia bakarrik zegoen. —oihukatu nuen.

—Egia da. Lehen bakarrik zihoan. Aha, zer da hau?

Arrasto bikoitzak bat-batean biratzen ziren King 's Pylandeko biderantz. Holmesek txistu egin zuen, eta biok jarraitu genituen oinatzak. Nire lagunaren begiak arrastoa finkaturik zeuden, baina nik kasualitatez alde batera begiratu nuen, eta ohartu nintzen, nire harridurarako, arrasto berberak beste aldera itzultzen ari zirela.

—Ondo, Watson. —esan zuen Holmesek, ikusten ari nintzena adierazi nionean. —Leku honetara bertara bueltatuko gintuen ibilaldi luzea aurreztu diguzu. Jarrai diezaiegun atzera egiten duten oinatzei.

Ez genuen urrutira joan behar izan. Mapletonen ukuiluetako ateetara zeraman asfaltozko zoladuran amaitzen zuten. Hurbiltzen ari ginela, mutiko bat agertu zen eta korrika egin zuen guregana.

—Ez dugu hemendik arloterik nahi. —esan zigun.

—Galdera bat besterik ez —esan zuen Holmesek, txalekoko poltsikoan bi hatz sartuz. —Goizegi izango litzateke zure nagusia, Silas Brown jauna, ikusteko bihar goizeko bostetan etorriko banintz?

—Bedeinkatua izan zaitez, jauna, norbait esnatuta badago bera izango da, beti izaten baita mugitzen lehena. Baina hemen duzu, jauna, zure galderak berak erantzun ditzan. Ez, ez, jauna, ezin dit zure dirua ukitzen ikusi. Gero, nahi baduzu.

Holmesek poltsikoan ateratako koroa erdia gordetzen zuen bitartean, basati aurpegia zuen agure bat agertu zen atetik, ehizako fusta bat eskuan.

—Zer da hau, Dawson! - oiuhukatu zuen. —Erran-merranik ez! Lanera joan zaitez! Eta zuek, zer arraio nahi duzue?

—Zurekin hamar minutuz hitz egin nahi dut, jauna —esan zuen Holmesek bere ahotsik atseginenarekin.

—Ez dut astirik hemendik pasatzen diren okupatu gabe guztiekin hitz egiteko. Ez dugu arrotzik nahi gure artean. Ospa hemendik, txakurrak botatzea nahi ez baduzue!

Holmes aurrerantz makurtu eta zerbait xuxurlatu zuen entrenatzailearen belarrira. Honek arnasa hartu eta belarrietaraino gorritu zen.

—Gezurra da! —oihu egin zuen—, infernuko gezurra!

—Oso ondo. Klean eztabaidatuko dugu edo nahiago duzu zure egongelan eztabaidatzea? —
O, etor zaitez nirekin nahi baduzu.

Holmesek irribarre egin zuen. —Minutu batzuk baino ez dizut itxaronaraziko, Watson. —esan zuen.
—Orain, Brown jauna, zure esanetara nago.

Hogei minutu igaro ziren, eta kolore gorrixkak grisetan lausotu ziren, Holmes eta entrenatzailea agertu baino lehen. Ez nuen inoiz inorengan ikusi Silas Brownen gertatu zen bezain aldaketa handirik. Aurpegia gris errauts gris batek estaltzen zion. Izerdi tantak erortzen zitzaizkion bekainetatik, eta eskuek halako dardara egiten zioten, ezen haizeak astindutako adar batek bezala astintzen baitzuen fusta. Bere jokabide harroputz eta autoritarioak desagertu ziren, eta nire lagunaren ondoan zetorren, txakurtxo bat bezala bere nagusiaren ondoan.

—Zure argibideak jarraituko ditut. Hitzez hitz jarraituko ditut. —esan nion.

—Ez du akats bakar bat ere egon behar. —esan zuen Holmesek, hura begiratzeko atzera jotzen. Entrenatzaileak mehatxu bat irakurri zuen bere begietan.

—O ez, ez da akatsik egongo! Han egongo da. Lehenago aldatu behar dut?

Holmesek pentsatu zuen erantzun aurretik, eta gero barrez hasi zen. —Ez, ez egin, esan zuen; jarraibideak idatziz bidaliko dizkizut. Tranparik ez edo..

—Nitaz fida zaitezke, nitaz fida zaitezke!

—Bai, uste dut zutaz fida naitekeela. Bihar nire berri izango duzu. Besteak luzatzen zion esku dardaratiari jaramonik egin gabe jiratu eta King 's Pylanderantz abiatu ginen.

—Tipo gutxitan aurkitu dut Silas Brownek aurkezten duen bezain harroputz, koldar eta zitalezko konbinazio perfektua. —azpimarratu zuen Holmesek oinez gindoazela.

—Orduan, berak al du zaldia?

—Ez entzuna egiten saiatu da zentzugabekeriak esanez, baina hain zehatz deskribatu dizkiot goiz hartan egindako urrats guztiak, non ziur geratu baita bera zelatatzen egon naizela. Jakina, konturatuko zinen arrastoen puntak oso forma karratu berezia zuela eta bere botei zegokiela. Gainera, langilerik ez zen ausartuko horrelako gauza batera. Azaldu diot goiz hartan, ohi bezala, beste inor baino lehenago jaiki zela, eta zaldi bat ikusi zuela noraezean zebilela. Bere bila atera zen eta harriduraz ikusi zuen, bere izenak zor dion bekokiko orban zuria, zorteak bere apustuko zaldia garaitu ahal zuen zaldi bakarra eman zion. Bere lehen bultzada King 's Pylandera itzultzea izan zela kontatu diot, baina deabruak lasterketa amaitu arte ezkutatzekeo ideia eman ziola, eta beraz, atzera egin eta Mapletonen ezkutatu zuela. Hainbeste xehetasun eman ondoren, amore eman zuen eta

bizirik ateratzea besterik ez zuen erabaki.

—Baina bere ukuiluak arakatu al zituzten?

—O, bera bezalako tranpati batek trikimailu amaigabeak ditu!

—Baina ez dizu beldurrik ematen zaldia bere eskuetan uzteak, min egiteko hainbesteko interesa duela jakinda?

—Nire lagun maite, bere begietako neskatoa balitz bezala zainduko du. Badaki bere barkaberatasun esperantza bakarra zaldia zauririk gabe agertzea dela.

—Ross koronela ez zitzaidan inola ere errukitasuna erakusteko prest dagoen pertsona iruditzen. — Eztabaida ez dago Ross Koronelaren esku. Nik neure metodoak jarraitzen ditut, eta neure kabuz erabakitzen dut zer esaten dudan eta zer isiltzen dudan. Hori da ez-ofiziala izatearen abantaila. Ez dakit konturatu zaren, Watson, baina koronelaren manerek apur bat harroputzak izan dira nirekin. Orain bere kontura dibertitzea nahi dut. Ez iezaiozu ezer esan zaldiari buruz.

—Ez dut hitzik esango zure baimenik gabe. Gainera, kontu hau ez da John Straker nork hil zuen jakitea bezain garrantzitsua.

—Eta horretan ibiliko zara?

—Alderantziz. Gaur gaueko trenean Londresera itzuliko gara.

Nire lagunaren hitzek harri eta zur utzi ninduten. Devonshiren ordu batzuk besterik ez generamatzan eta ulertezina egiten zitzaidan hain modu bikainean hasitako ikerketa uztea. Baina ezin izan nion beste hitzik atera entrenatzailearen etxera itzultzeko bidean. Koronela eta inspektorea zain genituen egongelan.

—Nire laguna eta biok Londresera itzuliko gara gaur gauean. —esan zuen Holmesek. —Plazer bat izan da Dartmoorreko aire goxoa arnastea.

Inspektoreak begiak asko zabaltzen zituen, eta koronelaren ezpainak mespretxuz zimurtu ziren.

—Beraz, Straker gizajoaren hiltzailea harrapatzeari uko egin diozu? —esan zuen.

Holmesek bizkarra jaso zuen. —Hori lortzeko zailtasun handiak daude, noski. —esan zuen. —Hala ere, ziur nago zure zaldia astearteko lasterketan parte hartuko duelaz. Eta eskertuko dizut jockeya prest izatea. John Straker jaunaren argazki bat eska diezazuket?

Inspektoreak gutunazal batetik argazkia atera eta eman zion.

—Gregory maitea, nire nahi guztiei aurreratzen zara. Une batez hemen itxaroten badidazu, galdera bat egin nahi nioke neskameari. —esan zuen Holmesek.

—Aitortu beharra daukat atsekabetuta nagoela Londresko aholkulariarekin - esan zuen koronelak Holmes gelatik atera zenean. —Ez dut aurrerapenik ikusi iritzi zenetik.

—Gutxienez zaldiak lasterketan parte hartuko duelaren hitza daukazu. —esan nion.

—Bai, bere hitza daukat. —esan zuen koronelak sorbaldak altxatuz. —Baina zaldia izatea nahiko nuke.

Nire lagunaren defentsan zerbait erantzutear nengoela, berriro sartu zen egongelan.

—Orain, jaunak, Tavistockera joateko prest nago. —esan zuen hark.

Mutiletako batek zalgurdiko atea ireki zigun gu igotzeko. Holmesek bapateko ideia bat zuela zirudien, aurrerantz makurtu, mutikoari kolpetxo bat eman eta esan zion:

—Ardi batzuk ikusten ditut belardian. —esan zuen. —Nork zaintzen ditu?

—Nik neuk, jauna.

—Ikusi al duzu zerbait arraroa gertatu zaiela azkenaldian?

—Ezer larririk ez, jauna; baina hiru herren geratu dira, jauna.

Holmesek erantzuna atsegin zuela iruditu zitzaidan, hortz artean barre egin zuelako eta pozik zegoelako.



—Aukera txiki bat, Watson; oso aukera txikia —esan zuen besoan imurtxi eginez. —Gregory, utzidazu ardiaren arteko izurrite arraro hau azaltzen. Aurrera, gurdizaina!

Ross koronelaren aurpegiak nire lagunaren gaitasunaz zalantzatzen jarraitzen zuela adierazten zuen, baina inspektorearen aurpegiak argi utzi zuen Holmesen hitzek interes bizia piztu ziotela.

—Hori garrantzitsua dela uste duzu? —galdetu zuen.

—Oso garrantzitsua.

—Ba al dago nire arreta erakartzeko puntu zehatzik?

—Gau hartako txakurraren portaera bitxia.

—Baina txakurrak ez zuen ezer egin gau hartan.

—Hori da bitxia dena —azpimarratu zuen Sherlock Holmesek.

Lau egun geroago, Holmes eta biok berriro geunden trenetan Winchesterrako bidean, Wessex Kopako lasterketa ikusteko. Ross koronelarekin hitzordua genuen geltokiaren aurrean, eta honek hiri kanpoko pistetara eraman gintuen bere zalgurdian. Aurpegi larria zuen eta hotsasun handiz jokatzeko zuen.

—Ez dut inon ikusi nire zaldia —esan zuen.

—Suposatzen dut zuk ezagutuko zenukeela ikusiko bazenu, ezta? —galdetu zuen Holmesek.

Koronela urak eta suak hartu zuen. —Hogei urte daramatzat lasterketetan eta inoiz ez didate horrelako galderarik egin. —esan zuen. —Haur batek ere ezagutuko zuen Silver Blaze, bekokiko orban zuriagatik eta pikardatutako aurreko hankagatik.

—Nola doaz apustuak?

—Ondo, hori da kasuaren zatirik bitxiarena. Atzo hamabost-bat lor zitezkeen, baina prezioa txikituz joan da, eta hirutik-batera iritsi da.

—Aha! —esan zuen Holmesek. —Argi dago norbaitek zerbait dakiela. —Zalgurdia zelaiaaren aurrean gelditu zenean, tribunatik hurbil, parte-hartzaileen zerrenda begiratu nuen.

1. Heath Newton jaunaren The Negro. Txano gorria. Kolore kanelazko jaka. 2.

Wardlaw koronelaren Pugil. Txano arrosa. Jaka urdina eta beltza.

3. Backwater lord-aren Desborough. Txano eta mahuka horiak.

4. Ross koronelaren Silver Blaze. Txano beltza. Jaka gorria.

5. Balmoralgo dukearen Iris. Marra hori eta beltzak.

6. Singleford lordaren Rasper. Txano morea. Mahuka beltzak.

—Beste zaldia kendu eta konfiantza osoa jarri dugu zure hitzean. —esan zuen koronelak—. Nola? Zer esan nahi du honek? Silver Blaze faborittoa?

—Bost-lau Silver Blazen aurka! —deiadar egin zuen ring-ak. —Bost-lau Silver Blazen aurka! Bost-hamabost Desboroughen aurka! Bost-lau pistan!

—Zenbakiak atera dira! —oihu egin nuen. —Sei zaldiak daude hor.

—Seiak hor? Orduan nire zaldiak korrika joango du! —oihu egin zuen koronelak urduri. Baina ez dut ikusten. Ez dira nire koloreak pasatu.

—Bost baino ez dira pasatu. Orain datorren honek izan behar du.

Hitz horiek esaten ari nintzela, zaldi uher indartsu bat atera zen pisatze-gelatik, eta trostan igaro zen gure aurretik, koronelaren kolore beltz eta gorriekin.

—Hau ez da nire zaldia! —oihu egin zuen jabeak. Pizti horrek ez du ile zuri bakar bat gorputz osoan. Zer egin duzu, Holmes jauna?

—Tira, tira. Ikus dezagun nola egiten duen —erantzun zuen nire lagunak, lasaitasuna batere galdu gabe. Minutu batzuetan pista begiratzeko egon zen nire prismatikoekin. —Bikain! Irteera bikaina! —oihu egin zuen bat-batean. —Hor daude, bihurguneari buelta emanez!

Gure zalgurditik ondo ikusten genuen nola iristen ziren azken zuzengunera. Sei zaldiak hain elkar zeuden, ezen alfonbra bakar bat nahikoa izango baitzen haiek estaltzeko, baina zuzengunearen erdian Mapletonen ukiluaren kolore horia nabarmendu zen. Hala ere, gu geunden lekura iritsi baino lehen, Desboroughek lekua galdu zuen, eta koronelaren zaldia azkar atera zen aurrerantz, eta gutxienez sei luzeko aldea gurutzatu zuen bere aurkariaren aurretik, Iris, Balmoraleko dukearena, hirugarren postura iristen zen bitartean, beranduago.

—Nolanahi ere, nik irabazi dut. —hatsanditu zuen koronelak, esku bat begietatik pasatuz. —Aitortzen dizuet ez dudala ezer ulertzen. Holmes jauna, ez al duzu uste ordua dela misterio horren berri behingoz emateko?

—Laster jakingo duzu dena, koronela. Goazen hirurok zaldia begiratzera. Hemen daukagu. —jarraitu zuen pisatze-gelara iristen ari ginela, eta jabeek eta haien lagunek bakarrik zuten bertara sartzeko aukera. —Aurpegia eta zangoa ardo pattarrekin garbitu besterik ez duzu egin behar, eta ikusiko duzu betiko Silver Blaze bera dela.

—Arnasarik gabe uzten nauzu!

—Iruzurti baten eskuetan aurkitu nuen, eta bidali zuten bezala zuzentzeko agindu nuen.

—Jauna maitea, mirariak egin dituzu. Zaldia oso ederra eta egonkor dirudi. Ez du inoiz hobeto egin. Mila barkamen zor dizkizut zure gaitasuna zalantzan jartzeagatik. Mesede handia egin didazu zaldia

berreskuratzean. Are gehiago egingo zenidake John Strakerren hiltzailea ere harrapatuko bazenu.

—Hala egin dut. —esan zuen Holmesek ahopeka.

Koronelak eta nik harrituta begiratu genion. —Baduzu! Non dago, beraz?

—Hemen dago. Hemen!

—Non?

—Nirekin dago orain.

Koronela gorritu egin zen haserre. —Aitortzen dut zurekin zorretan nagoela, Holmes jauna —esan zuen—, baina esan berri duzuna gustu txarreko txantxa edo iraintzat hartu behar dut.

Sherlock Holmesek barre egin zuen. —Benetan diotsut ez zaitudala krimenarekin lotzen, koronela —esan zuen. —Benetazko hiltzailea zure atzean dago. —Aurretik pasa eta eskua odolgarbiaren lepo distiratsuan jarri zuen.



—Zaldia! —oihukatu genuen Koronela eta biok. —Bai, zaldia. Eta agian bere errua gutxitu egingo da esaten badizut bere burua defendatzeko egin zuela, eta John Straker ez zela bere konfiantzaren

duina. Baina hor doa kanpaia, eta hurrengo lasterketa honetan irabazteko aukerak ditudanez, azalpen luze bat atzeratuko dut une hobe baterako.

Gau hartan Pullman auto baten kantoia guretzat bakarrik genuen, Uste dut Londreseko bidea laburra izan zela Ross koronela eta niretzat, bitartean astelehen gauean Dartmoorren entrenamendu-ukuiluetan gertatutako gertakarien berri izan genuelako. eta zer bide erabili zituen horretarako.

—Aitortzen dut —esan zuen—egunkarietako txostenetatik abiatuta sortutako teoria guztiak erabat okerrak zirela. Eta, hala ere, han bazeuden zantzurik, haien benetako garrantzia ezkututzen zuten beste xehetasun batzuegatik gainjarri ez balira. Devonshirera joan nintzen, Fitzroy Simpson benetako erruduna zelakoan, nahiz eta, jakina, haren aurkako frogak ez zeudela batere osorik ikusi nuen. Zalgurdian nengoela, entrenatzailearen etxera iritsi ginenean, curry-bildotsak zuen esanahi ikaragarria bururatu zitzaidan. Agian gogoratuko duzue ni distraiturik nengoela, eta eserita geratu nintzela zuek guztiok jaitsi ondoren. Harritu egiten ninduen nola utzi ahal izan nuen hain pista nabari bat alde batera.

—Onartzen dut oraindik ez dakidala curry-bildotsak nola lagundu digun. —esan zuen koronelak.

—Nire arrazoiketa-katearen lehen maila izan zen. Opio-hautsa ez da batere zaporegabea. Zaporea ez da desatsegina, baina hautemateko modukoa da. Beste mota bateko gisatu batean bota izan balu, mahaikideak antzeman egingo zukeen, eta ez lukete jaten jarraituko. Baina currya zapore hori disimulatzeke saltsa egokia da. Ezinezkoa zen Fitzroy Simpson bezalako ezezagun batek bildotsa zerbitzatzea lortzea entrenatzailearen etxean gau hartan, eta kointzidentzia handia izango litzateke opio-hautsez horniturik agertu izana zaporea aldatuko zion plater bat prestatzen ari zen gauean bertan. Beraz, Simpson kasutik kanpo geratu zen, eta gure arreta Strakerrengan eta haren emaztearengan jarri behar genuen, gau horretan afaltzen zena erabaki zezaketen bi pertsonengan, alegia. Opioa zerbitzariarentzako platera bereizi ondoren sartu zen, besteek ez zituztelako haren ondoriorik jasan. Bietako zeinek izan zuen platererako sarbidea neskameak ikusi gabe?

—Galdera hori erantzun aurretik, konturatu nintzen zein esanguratsua zen txakurraren isiltasuna, dedukzio egoki batek beste batera eramaten gaituelako beti. Simpsonen gertakariak agerian utzi zidan txakur bat zegoela ukuiluetan, eta, hala ere, honek ez zuen behar adina zaunka egin bi mutikoak esnatzeko norbait sartu eta zaldia eraman zuenean. Jakina, txakurrak ondo ezagutzen zuen gaueko bisitaria.

— Orduan konbentzituta nengoen, edo ia konbentzituta, John Straker gauean ukuiluetara joan zela eta Silver Blaze atera zuela. Zetarako? Helburu lizunak izan behar zituen. Bestela, zergatik emango lioke droga bere ukuileko mutikoari? Baina ez zuen arrazoirik aurkitzen. Ez litzateke lehen kasua izango lasterkari baten bidez bere zaldien aurka apustu eginez dirutza handiak irabazi dituen entrenatzaile batena, eta iruzurreko trikimailuak erabili dituen irabaz dezaten. Batzuetan jockeyra joz. Beste batzuk, baliabide sotilagoak eta seguruagoak erabiliz. Zer gertatu zen kasu honetan? Nik espero nuen poltsikoen edukiak ondorio bat ateratzen laguntzea.

—Eta hala izan zen. Ez zuten ahaztuko hildakoaren eskuetan aurkitutako aizto bitxia, inork arma

gisa aukeratuko lukeen aiztoa. Watson doktoreak adierazi zigun bezala, ebakuntza kirurgiko delikatueta erabiltzen den tresna mota bat da. Eta horretarako erabiliko zen gau hartan. Zuk, Ross, koronela, hipika kontuetan daukazu esperientziari esker, jakingo duzu posiblea dela zaldi baten hankako tendoietan larruazalpeko ebaki txiki bat egitea arrastorik utzi gabe. Animalia apur bat herren geratuko da, entrenamendutako ustekabe bati edo erreumatismo bati egotzitako herrentasuna izango du, baina inoiz ez delitu-ekintza bati.

—Zitala! Lotsagabea! —oihu egin zuen koronelak.

—Horregatik atera nahi zuen John Strakerrek zaldia zelai zabalera. Hain animalia kementsuak, hortzaren ahoa sentitzean, zalaparta handia sortuko zukeen, loaldirik sakonena iratzartzeko modukoa. Ukuilutik kanpo egin behar zen.

—Itsua egon naiz! —oihu egin zuen koronelak. —Horregatik behar zuen kandela eta pospolo bat piztu zuen.

—Zalantzarik gabe. Baina bere gauzak aztertzean, delituaren metodoa ez ezik, haren zergatia ere aurkitu nuen. Munduko gizon gisa, Koronel, badakizu gizonak ez dutela beste pertsonen fakturak poltsikoan eramaten. Guk nahikoa dugu gurea konpontzeko. Berehala ondorioztatu nuen Strakerrek bizitza bikoitza zeramala eta bigarren etxe bat zuela. Fakturaren izaerak frogatzen zuen dama bat zegoela kasuan, gastu garestiak zituen dama. Zure menpekoekin eskuzabala izan arren, ezin duzu imajinatu ere andreei hogeitaz gineako jantziak erosten utziko dietenik. Straker andreaki galdetu nion soinekoari buruz, berak zergatia jakin gabe, eta honek esan zuen ez zuela inoiz horrelako soinerik izan. Jostunaren helbidea idatzi nuen, Strakerren argazki batekin bisitatzen bagenuen Derbyshire mitikoaz erraz libratuko ginatke.

—Ordutik aurrera dena argi zegoen. Strakerrek zaldia eraman zuen paramo batera, argia ikusten ez zuen leku batera. Simpsonak, ihesean gorbata galdu zuen, eta Strakerrek jaso egin zuen, zaldiaren hankak lotzeko baliagarri izan zekiokela pentsatuz. Paramoan animalien atzean kokatu zen eta pospolo bat piztu zuen, baina Silver Blazek, bat-bateko distirak asaldaturik, eta, animaliek duten sen bitxi horrek oharturik, zerbait txarra gertatuko zela sentitu zuen, ostiko bat eman, eta ferrak Straker jo zuen kopetan. Euria egin arren, entrenatzaileak zira kendu zuen bere lan delikatu egiteko, eta, erortzean, bere aiztoak ebaki bat egin zion izterrean. Argi eta garbi ahaldu al dut?

—Bikain! —oihukatu zuen koronelak. —Zoragarria! Han egon zinela ematen du!

—Aitortzen dut nire azken diana zorte-kolpe baten ondorio izan zela. Pentsatu nuen entrenatzailea bezalako gizon zuhur batek ez zuela interbentzio kirurgiko delikaturik egingo lehenago bat egin gabe. Nola praktikatu zezakeen? Kasualitatez ardiei erreparatu nien, eta galdera bat egin nuen, nire harridurarako, nire dedukzioa egokia zen.

—Londresera bueltatu nintzenean, jostuna bisitatu nuen, eta hark Straker Derbyshire bezero bikain gisa identifikatu zuen, oso emakume dotore eta jantzi garestiak aukeratzen zituen batekin ezkondua. Ziur nago emakume honek belarrietaraino zorpetu zuela eta halako trikimailu ziztrin

batera behartu zuela.

—Dena argitu duzu, gauza bat izan ezik. —oihu egin zuen koronelak. —Non zegoen zaldia?

—A! Zaldiak ihes egin zuen, eta auzoko batek zaindu zuen. Puntu hau alde batera utzi behar dugula uste dut. Clapham Junction-en gaudela uste dut, eta hamar minutu baino lehen iritsiko gara Victoria geltokira. Gure etxean zigarro bat erre nahi baduzu, koronela, plazer bat izango da zure interesa piztu duen beste edozein xehetasun azaltzea.